



barrixe.com



bizkaiko berrikuntza
behatokia
observatorio de la innovación
de bizkaia

NORA
BIDEA

2025

BERRIKUNTZAK BIZKAIKO ENPRESETAN

duen garrantziari buruzko inkesta

Labupern betearazlea

AURKIBIDE

	Orr.
SARRERA	3
DEFINIZIOAK	4
BERRIKUNTZA BIZKAIA: GAKOAK ETA ERRONKAK	5
ENPRESA BERRITZAILEAK	9
❖ Berrikuntza Arloak	10
❖ Jarduera berritzailearen arrakasta-maila	11
❖ Jarduera berritzailearen eraginak	12
❖ Enpresetako berrikuntzaren baldintzatzaileak	13
ENPRESA EZ-BERRITZAILEAK	14
❖ Berritzeko eskatutako laguntzak	15
ENPRESEN LANKIDETZA	16
BERRITZEKO ETORKIZUNEKO ASMOA	17
BIZKAIKO BERRIKUNTZAREN INDIZEA	18
BIZKAIKO ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN BILAKAERA - Grafikoak	19

SARRERA

2007. urtetik, **barrixe - Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak** “**norabidea: Berrikuntzak Bizkaiko Enpresetan duen Garrantziari buruzko Inkesta**” azterlana egiten du, lurraldeko enpresek berrikuntzarekin nolako harremana duten sakon aztertzeke asmoz.

Txosten* horrek aukera ematen du enpresek 2024an jarduera berritzaileetan izan duten inplikazio-maila, azken aldiko bilakaera eta enpresa berritzaileen eta ez-berritzaileen arteko profil bereiziaz ezagutzeko.

ENPRESA BERRITZAILEEI dagokienez, azterketak horien ezaugarriak, berrikuntza-esparruak, lortutako ondorioak eta itxaropenen betetze-maila aztertzen ditu, eta horrek jardunbide egokiak eta joerak identifikatzea errazten du.

ENPRESA EZ BERRITZAILEEI dagokienez, oztopoak, beharrak eta kultura berritzailearekiko duten hurbiltasun-maila identifikatzen dira, eta, horri esker, uler daiteke zer oztopo dauden horiek aurrera egiteko.

Azterlanaren emaitza gisa, **BIZKAIKO BERRIKUNTZA INDIZEA** eraiki da, lurraldeko enpresetan jarduera berritzailearen sistematizazio-maila neurtzen duen adierazlea. Enpresak berrikuntzaren hainbat alderdiri buruz emandako erantzunetan oinarritzen da, eta Bizkaiko berrikuntza-portaeraren neurketa agregatua eta konparatiboa ahalbidetzen du.

** Txosten hau txosten osoago baten laburpen exekutiboa da, eta barrixe.com webgunean kontsulta daiteke.*

DEFINIZIOAK

2025eko norabidea egitean, **2018ko Osloko Eskuliburuaren** bertsio berriko azalpenak hartu dira kontuan. Bertan, hain zuzen ere, berrikuntza teknologikoaren zein ez-teknologikoaren arteko bereizketa desagertu zen, eta berrikuntzak produktuaren edota prozesuaren arlokoak direla ezarri zen.

Aldaketa horien ondorioz, honelaxe geratu dira azalpenok:

❖ **BERRIKUNTZA:** berrikuntza produktu edo negozio-prozesu berria edo hobetua da (edo bien konbinazioa), betiere, establezimenduko aurretiazko produktu edo negozio-prozesuetatik modu nabarian bereizten bada eta merkaturatu edo establezimenduan ezarri bada.


❖ **PRODUKTUAREN EDO ZERBITZUAREN BERRIKUNTZA:** produktuaren berrikuntza ondasun edo zerbitzu berria edo hobetua da, betiere, enpresako aurretiazko ondasun edo zerbitzuetatik modu nabarian bereizten bada eta merkaturatu bada.

❖ **PROZESUAREN BERRIKUNTZA:** prozesuaren berrikuntza negozioko eginkizun baterako edo gehiagotarako berria edo hobetua den negozio-prozesua da, betiere, enpresako aurretiazko negozio-prozesuetatik modu nabarian bereizten bada eta ezarri egin bada.

BERRIKUNTZA BIZKAIA: GAKOAK ETA ERRONKAK

2024ko txostenak erakusten du bultzada handia eman zaiola Bizkaiko jarduera berritzaileari. Produktu eta zerbitzuen berrikuntzak hazkunde nabarmena izan du, bai barne-erabilerarako bai merkaturako proposamenetan aurrerapenak egin baitira. Berrikuntzan ere gero eta dibertsifikazio handiagoa ikusten da, antolaketa- eta marketin-prozesuak barne. Joera horrek 2023an hasitako egonkortzearekin jarraitzen du, 2022an gorakada izan ondoren, COVID-19 pandemiaren inpaktu negatiboen eta nazioarteko tentsioen ondoren susperraldiak markatutako urtea.

2018 eta 2021 bitartean enpresa berritzaileen tasak behera egin ondoren, 2022 eta 2023 artean gorakada txiki bat eta egonkortzea izan zuten. **2024an, enpresen % 47,8k berritzailetzat jotzen dute beren burua, hau da,** ehuneko 6,7 puntuko igoera 2023tik, 2019ko mailetara hurbilduz. Gainera, enpresen % 61,4k berrikuntzak egin dituzte azken lau urteetan, eta % 31,6k berrikuntzaren "nukleo gogorra" osatzen dute, jarduera berritzaile sistematikoa eta jarraituarekin.



Prozesuetako berrikuntzak lidergoan jarraitzen badu ere (% 35,5etik % 40ra igo da), 2024ko aurrerapen garrantzitsuena produktuen eta zerbitzuen berrikuntzan izan da, % 24tik % 33ra igaro baita, 2019tik izandako mailarik altuena. Horrek barne hartzen ditu bai barne-erabilerarako berrikuntzak (% 25,4), bai merkaturako berrikuntzak (% 21,5), eta balio diferentziala sortzeko apustua islatzen du.

Prozesuen barruan, antolakuntzako eta kanpo-harremanetako berrikuntzak nabarmentzen dira, % 14,7tik % 22,2ra igaro baitira.



Berrikuntza-indizeak urteetako beherakadaren osteko susperraldia islatzen du. Berrikuntza-maila handiak edo oso handiak dituzten enpresen ehunekoa % 28,1etik % 32,8ra igo da, eta berrikuntzaren integrazio sistematikoagoa eta egituratuagoa erakutsi du enpresa-estrategian. Aldi berean, berrikuntza-maila baxuko enpresek behera egin dute, enpresa-ekosisteman heldutasun handiagoa sendotuz.

Norabidea 2025 azterlanaren beste ondorio nagusietako bat da bai onurek bai arrakastaren pertzepzioak oso balantze positiboa erakusten jarraitzen dutela berrikuntzari ekiten dioten erakundeen artean.

Hala, erakundeen %74,1ek uste du berritzeko erabakia arrakastatsua izan dela; horrek erakusten du berrikuntza-jardueraren arrakasta-pertzepzioa ehuneko 4,2 puntu jaitsi dela, aurreko olatuarekin alderatuta. Hala ere, oso parametro positiboetan mantentzen jarraitzen du, %70,0tik gora, aurreko olatuetan bezala.



Beste muturrean dago 2024an inolako jarduera berritzailerik izan ez duten konpainien %52,2; murrizketa nabarmena 2023ko %58,9arekin alderatuta. Enpresek ekimen berritzailerik ez abiatzeko aipatzen dituzten arrazoiak, bere pertzepzioaren arabera, estu lotuta daude merkatuaren dinamismoarekin. Adierazle horrek beheranzko joera erakusten duen arren, inkestatutako konpainiek gehien aipatzen duten arrazoa izaten jarraitzen du (%42,7).

2024 inflexio-puntu positiboa eta orokorra izan da Bizkaiko berrikuntzarako, adierazle kuantitatiboak igotzeaz gain, hainbat arlotan ere (produktua, antolaketa, lankidetzak, babesak...) igotzen baitira. Horrek adierazten du enpresa-sistema heldu egin dela, eta ekosistema berritzailea sendotu egin dela. Enpresak gero eta konprometituagoak daude etengabeko eraldaketarekin eta hobekuntzarekin, baina oraindik erronka handiak dituzte sistematizazioan, kulturen eta gaitasunetan.




Zaila da datozen ekitaldietan gertatuko dena iragartzea. Oro har, jarraitutasunerako joera sumatzen bada, eta Bizkaiko enpresa berritzaileek etorkizunarekiko adierazitako asmoak balio positiboetan jarraitzen badu ere, pandemia garaitik etengabeko beherakada nabari da. Hala eta guztiz ere, lehen aipatutako gai batzuez gain, badira Bizkaiko enpresen jarduera berritzaileari dagokionez baikorrak izatera eramaten duten elementuak, hala nola berrikuntza enpresen helburu estrategikoetan txertatzea, laguntzak eskuratzeko aukera gehiago izatea edo lankidetzak handitzea beste enpresa batzuekin edo beste eragile batzuekin.

Azken finean, Bizkaiko enpresak eredu berritzaileago baterantz aurrera egiten ari dira, sendotze seinale argiekin, baina baita hobekuntza arlo nabariekin ere. Berrikuntza enpresa-estrategietan gero eta integratuagoa izaten ari den arren, oraindik lan asko dago egiteko zeharkako balio bihurtu dadin, Lurraldeko ekosistema ekonomiko osoan modu integralean presente egon dadin.



ENPRESA BERRITZAILEAK



Bizkaiko enpresen %47,8k ekimen berritzaileak jarri dituzte abian 2024. urtean.

2017tik zenbait urtetan enpresen jarduera berritzaileak behera egin ondoren eta 2022an zein 2023an egonkortu ondoren, 2024an gora egin du nabarmen. Bilakaera hori, ordea, etorkizuneko neurketetan baieztatu beharko da.

BERRITZEN DUTEN ENPRESEN KOPURUAK GORA EGIN DU NABARMEN


Lurraldeko hamar enpresatatik seik diotenez, nolabaiteko berrikuntza ezarri dute enpresan azken 4 urteotan (%61,4), eta enpresa horien %31,6k etengabe eutsi diote jarduera berritzaile horri.

Datuen historikoari dagokionez, nabarmendu egiten da berrikuntzako partaidetzaren gorakada epealdi luzean (azken 4 urteotan) sendotu dela, +%6,1 hazi delako 2023. urtearen aldean.


BERRITZAILEA UNEREN BATEAN
2020-2024



ETENGABEKO BERRIKUNTZA
2020-2024



BERRIKUNTZARA
IRITSI BERRIAK



EZ - BERRITZAILEAK
2020-2024




BERRIKUNTZA-ARLOAK


2018ko Osloko Eskuliburuan azaldutako tipologiaen arabera, ahalegin berritzaileen xede nagusia **“PROZESUAREN”** berrikuntzak (%40,0) izan dira, **“PRODUKTUAREN”** berrikuntzen gainetik (%33,0). Azken datu hori nahikoa nabaria da azterlanean bertan, gehikuntza 9 ehunekoa izan delako, joera-aldaketa horren adierazgarri.

Talde horretan bertan, enpresarentzako produktu edo zerbitzu berri edo hobetuak dira nagusi (%25,4), merkatua helburu dutenen aldean (%21,5).

PRODUKTUA EDO ZERBITZUA



PROZESUAREN BERRIKUNTZA



2018ko Osloko Eskuliburuaren aurretiko berrikuntza-tipologiaen arabera, guzti-guztiek gora egin dute. Edonola ere, **antolakuntzaren berrikuntzen gorakada nabarmentzen da**, batez ere; eta, ondoren, marketinaren berrikuntza. Ekoizpenarekin, banaketarekin eta logistikarekin zerikusia duena, ordea, gutxien hazi dena izan da.


EKOIZPENA, BANAKETA ETA LOGISTIKA

%27,9 %,26,0*




MARKETINA

%15,4 %12,3*



ANTOLAKUNTZA


%22,9 %16,1*



*2023ko datuak

JARDUERA BERRITZAILEAREN ARRAKASTA-MAILA

Aurreikuspenen betearazpen-maila %74,3koa izan denez, jarduera berritzailearen arrakastaren inguruko pertzepzioa 4,2 ehuneko jaitsi da, aurreko olatuaren aldean. Dena dela, oso parametro onetan jarraitzen du, %70etik gorakoa delako, aurreko olatuetan bezala..




Aurreikuspenen betearazpenari dagokionez, **berrikuntza-prozesuetan parte hartu duten enpresen %11,1ek uste dute esperientzia arrakastatsua izan dela** eta haien hasierako aurreikuspenak ere gainditu dituela.

Enpresa berritzaileen %74,1ek nahikoa edo erabat bete dituzte helburuak edo aurreikuspenak.

Esperientziaren balantzea hobexea da zerbitzuen sektoreko enpresen artean, baina eraikuntzaren sektorearen balantzea ez da hain ona izan. Industria, merkataritza eta konponketa, ordea, bitarteko mailetan daude.


INDUSTRIA ETA ENERGIA

%73,7



ERAIKUNTZA

%70,9



MERKATARIZA ETA KONPONKETA

%62,4




ZERBITZUAK

%75,1



JARDUERA BERRITZAILEAREN ERAGINAK



Enpresa berritzaileen %74,7k aitortu egin dute gutxienez eragin “handia” nabaritu dutela euren jarduera berritzailearen emaitza zuzen moduan. Beraz, ehuneko hori zertxobait jaitsi da 2023koaren aldean. Edonola ere, adierazleak oso parametro onei eutsi die.

Horrez gain, berrikuntza abian jarri duten enpresa guztiek nolabaiteko eragina edo azterna antzeman dute ezarpen horren ondorioz (%95,5), txikia, ertaina edo handia izan arren.

Berrikuntza-jarduketak ezarri dituzten enpresa gehienek nolabaiteko eragina nabaritu dute ezarpen horren ondorioz, txikia, ertaina edo handia izan arren.


KALITATE handiagoko ondasunak eta zerbitzuak

%75,8




ERANTZUTEKO EPEALDI laburragoa

%69,0



MALGUTASUN handiagoko ekoizpena

%66,7



ARAUDIKO ESKAKIZUNEN betearazpena

%67,4



FAKTURAZIO/MOZKIN handiagoak

%66,8



INFORMAZIOAREN TRUKE hobea

%65,1



ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN BALDINTZATZAILEAK


Guztira, enpresek aurrera egin dute kultura berritzailean, baina oraindik jarduera horiek sendotzeko erronkei aurre egin beharko diete.

Bizkaiko enpresek gero eta interes handiagoa dute, berrikuntza aurrekontu handiagoaz eta horretan diharduten langile gehiagorekin kudeatzeko. Era berean, jakintzaren babesak ere hobera egin du. Nolanahi ere, testuinguru ekonomikoak berrikuntzako inbertsioa mugatzen jarraitzen du, eta, aurrera egin duen arren, txikia da oraindik.

TRESNAK

Berariazko **AURREKONTUA** dute berrikuntzarako

%18,1 **%17,9***



Egindako berrikuntzen mozkinak antzematen dituzte **KONTABILITATEAN**

%26,2 **%24,0***



SAIL TEKNIKOA EDO I+G+b-ko LANGILEAK dituzte

%20,0 **%12,6***



ASMAKIZUNAK EDO JAKINTZAK BABESTEN DITUZTE

%20,1 **%13,6***



TESTUINGURU EKONOMIKOAREN ERAGINA**

Berrikuntzako **HELBURUEI EUSTEN DIETE**, egoera ekonomikoa edonolakoa dela ere

%16,7 **%17,0***



Berritu egiten dute, **TESTUINGURU EKONOMIKOA** edonolakoa dela ere


%44,3 **%49,5***



* 2023ko datuak

* "asko" eta "nahikoa" erantzun zuten enpresen batura da ehunekoa

ENPRESA EZ-BERRITZAILEAK



Bizkaiko enpresen %52,2k ez dute inolako jarduera berritzailek egin 2024an.

Horren arabera, datua 6,7 ehuneko jaitsi da, 2023koaren aldean


BERRIKUNTZARAKO ERAGOZPENAK

Enpresei galdetu zaie zergatik ez duten ekintza berritzailek abian jarri, eta antzeman egiten da oraindik ere merkatua dela oztopo nagusia.


Aldi berean, behera egin du kostu handia eta antolakuntzaren zurruntasuna oztopo nagusi moduan aipatzen dituzten enpresen kopuruak.

Horren guztiaren ondorioz, merkatuaren eta hobekuntza lehiakorraren premiaren inguruko ikuspegia epe laburrerakoa da.

MERKATUAGATIK




EZ DA BERRITU BEHAR



KOSTUAGATIK



ANTOLAKUNTZAGATIK




* datos del 2023

BERRITZEKO ESKATUTAKO LAGUNTZAK


2024an, berritzeko orduan nolabaiteko laguntza behar dutela uste duten enpresen kopurua gehitu da, %78,6tik %84,6ra igo delako.

Premia hori, gainera, aldatu egiten da, enpresak aurreko urtean berritu duen ala ez kontuan hartuta: berritzaileen %89,4k nolabaiteko laguntza eskatzen dute, ez-berritzaileen %76,5en aldean.

Laguntza-mota eskatuena ekonomikoa da, edonolakoa dela ere, enpresa berritzaileetan nahiz ez-berritzaileetan, berritzaileak gehien eskatzen dutenak badira ere.



ENPRESEN LANKIDETZA



Bizkaiko enpresen %39,1ek behar besteko hitzarmenak ezarri dituzte, euren gaitasunak partekatzeko eta euren abantaila lehiakorrak handitzeko. Horiek horrela, 2019. urtekoen antzeko mailetara itzuli dira.


Elkarlanean ari direla dioten Bizkaiko enpresen lankidetzak produktu edo zerbitzu berrien edo hobetuen garapena izan du xede nagusi.

Elkarlanean ari diren enpresen %75,5ek sektore bereko beste batzuekin lan egiten dute, eta horixe bera da aukera ohikoena. Hortik urrun, beste sektore batzuetako enpresekin (%27,3) eta bezeroekin (%21,0) egindako lankidetzak dugu.

ZERTARAKO


Produktu edota zerbitzu berriak edo hobetuak diseinatzea edo garatzea

%39,8




Produktu edo zerbitzu berrietarako **ideiak** sortzea

%32,6



Merkatu berriak garatzea

%25,3



NOREKIN

Sektore bereko enpresak

%75,5




Beste sektore batzuetako enpresak

%27,3



Bezeroak


%21,0



BERRITZEKO ETORKIZUNEKO ASMOA

2020an hasitako beheranzko joera baieztatu da, Bizkaiko enpresa berritzaileek etorkizunean berritzen jarraitzeko aitortutako asmoari dagokionez, gurari berritzailea berriro jaitsi delako antolakuntzaren eta lankidetzaren arloan, batez ere.


Dena dela, enpresek interes handiagoa daukate produktuekin, zerbitzuekin eta prozesuekin lotutako berrikuntzetan.




BIZKAIKO BERRIKUNTZAREN INDIZEA

Bizkaiko Berrikuntzaren Indizearen arabera, azken urtean aldaketatxoak egon direnez, baliteke joera bera ere aldatzea. Hori dela eta, etorkizunean zer gertatzen den ikusi beharko da. Izan ere, indize globalak gora egin du, baita oso maila handietan dauden enpresen kopuruak ere. Aldi berean, beheragoko faseetan dauden enpresen kopuruak behera egin du, ordea.


OSO HANDIA / HANDIA



ERTAINA



TXIKIA / OSO TXIKIA



BERRIKUNTZA HANDIKO ENPRESAREN PROFILA

Enpresa-talde batekoa da

Esportatzailea

Laguntza publikoa eskuratu du

Beste enpresa eta eragile batzuekin ari da elkarlanean

20 langile baino gehiago ditu

I+G+b-ko langileak ditu

Jakintzan eta teknologian intentsiboa den sektorea

Negozio-zikloa garatzen hasi den enpresa **sortu berria**

BIZKAIKO ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN BILAKAERA

“norabidea. Berrikuntzak Bizkaiko Enpresetan duen Garrantziari buruzko Inkesta” azterlana 2007. urtetik egiten den txostena denez, urteen joan-etorrian badugu Bizkaiko enpresek berrikuntzaren arloan izan duten bilakaera aztertzerik.

Ondoren, azterlan honetan kontuan hartutako **adierazle nagusien** bilakaera izango dugu aztergai, eta, horri esker, berrikuntzaren arloan Bizkaiko enpresek aurrera edo atzera egin duten edo etengabeko ibilbideari eutsi dioten ikusi ahal izango dugu.

** Nabarmentzekoa da grafikoetan adierazitako aldiak aldatu egiten direla datuen eskuragarritasunaren eta alderagarritasunaren arabera. Adierazle batzuek 2007az geroztiko serie osoa barne hartzen dute, beste batzuk 2019 – 2024ra mugatzen dira aldaketa metodologiko garrantzitsu baten ondorioz, eta kasu batzuetan azken hamar urteak bakarrik erakusten dira (2014 – 2024) eboluzio berrienera bideratzeko. Hautaketa honen helburua aurkeztutako informazioaren koherentzia eta kalitatea bermatzea da.*

*** Grafiko batzuetan, ardatz bertikala % 100etik beherako tartera egokitu zen, bistaratzea hobetzeko eta interpretazioa errazteko, datuen baliozkotasunari eragin gabe.*

BIZKAIKO ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN BILAKAERA

GRAFIKOEN ZERREDA

BIZKAIKO ENPRESEN JARDUERA BERRITZAILEA

BERRIKUNTZA-ARLOAK - Osloko Eskuliburua

BERRIKUNTZA-ARLOAK - Historiko

JARDUERA BERRITZAILEAREN ERAGINAK


JARDUERA BERRITZAILEAREN ARRAKASTA-MAILA

ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN BALDINTZATZAILEAK

BERRITZEKO ETORKIZUNEKO ASMOA

ENPRESEN LANKIDETZA

BIZKAIKO BERRIKUNTZAREN INDIZEA




BIZKAIKO ENPRESEN JARDUERA BERRITZAILA

Bizkaiko enpresetako jarduera berritzaileari erreparatuz geroz, agerikoa da joera beheranzkoa izan dela 2007tik 2024ra. Gutxieneko datuak 2021. urtearen ingurukoak diren arren, 2022an hasi dira gora egiten.

Irizpide zabala %69,9tik %61,4ra jaitsi da; eta zorrotza, are gehiago, %44,2tik %31,6ra, hain zuzen ere. Aurretiazko ekitaldiko datuaren bilakaera antzekoa izan da, ordea.

Azken urteotan nolabaiteko kezka sortu den arren, intentsitate berritzailea 2008ko krisialdiaren aurretiko mailetatik beherakoa da oraindik.



BERRIKUNTZA-ARLOAK


Osloko Eskuliburua

2019an, barrixek norabidearen azterlana egokitu zuen **Osloko Eskuliburuaren (2018)** tipologia kontuan hartuta, eta, horren arabera, Bizkaiko enpresen berrikuntza honelaxe dago banatuta: produktuaren edota zerbitzuaren berrikuntza eta prozesuaren berrikuntza.

2019tik 2023ra, produktuaren berrikuntza egonkor samarra izan da, %22,4 eta %25,6 artekoa izan da-eta.

Prozesuaren berrikuntza, ordea, nabarmen jaitsi da 2021ean (%29,5), 2019an %43,6koa izan ondoren. Dena dela, apurka-apurka, %35,3raino igo da 2023an.

Hori dela eta, oraindik produktuaren berrikuntza etengabea bada ere, badirudi prozesuen berrikuntzaren gorabeherak nabariagoak izan direla eta, seguruenik, oraintsuko erronka zein aukera teknologikoekin eduki duela zerikusia.



* 2019a baino lehenagoko informazioa ez dago eskuragarri, erabilitako sailkapenak Osloko Eskuliburuaren bertsio berrienari erantzuten diolako.

BERRIKUNTZA-ARLOAK


Historiko

2019tik 2023ra, Bizkaiko enpresen berrikuntzari dagokionez, tipologia historikoaren arabera, argi dago **ekoizpenaren, banaketaren eta logistikaren berrikuntza dela arruntena, %33,3tik %26ra jaitsi den arren.**

Marketinaren berrikuntza, ordea, ez da hain ohikoa, %17,9tik %12,3ra jaitsi da-eta.

Antolakuntzaren berrikuntzak ere behera egin du 2021ean, **baina %16,1eraino igo da 2023an.**

Joera horiek oraintsuko zailtasunen adierazgarri dira, eta, orain, prozesuen berrikuntzaren kategoriapean daude sartuta, Osloko Eskuliburuaren arabera (2018).



JARDUERA BERRITZAILEAREN ERAGINAK

2014tik 2024ra, honako hauexek izan dira berrikuntzak Bizkaiko enpresetan eduki dituen eragin nagusiak: ondasun zein zerbitzuen kalitate handiagoa, erantzuteko epealdi laburragoa eta ekoizteko malgutasun handiagoa.

Oraindik ere onura horiek handiak diren arren, beheranzko joeratxo antzeman da 2014. urteaz geroztik. 2020an, ordea, tarteka suspertu da, pandemiari aurre egiteko egokitzapenaren ondorioz, seguruenik.


2024an, enpresen %75,8k kalitatearen hobekuntza nabarmendu dute; %69k, erantzuteko epealdi laburragoa; eta %65,9k, ekoizpenaren malgutasuna. Beraz, argi eta garbi dago oraindik ere berrikuntza funtsezkoa dela enpresen lehiakortasuna hobetzeko orduan.

JARDUERA ERAGINAK

■ KALITATE HANDIAGOKO ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK

■ ERANTZUTEKO EPEALDI LABURRAGOA

■ MALGUTASUN HANDIAGOKO EKOIZPENA




JARDUERA BERRITZAILEAREN ARRAKASTA-MAILA

2007-2024ko epealdian, berrikuntzak egin dituzten Bizkaiko enpresa gehienentzat, haien berrikuntzak arrakastatsuak izan dira. Salbuespenak salbuespen, balioak %60tik gorakoak izan dira, eta, 2020an, %78,8ko gehienekoak lortu dira.

Oraindik ere, porroten mailak oso txikiak dira, %8tik beherakoak, oro har, nahiz eta 2024an %10,3raino igo diren.

Bilakaera horri erreparatuz gero, gehienen ustez berrikuntzaren eragina ona izan da, nahiz eta testuinguru ekonomiko zein teknologiko aldagarrien ondorioz gorabehera batzuk sortu diren.




ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN BALDINTZATZAILAK

2012tik 2024ra, Bizkaiko enpresek modu desberdinean erabili dituzte berrikuntza kudeatzeko tresnak.

2024an, I+G+b-ko berriarazko langileen erabilerak eta aurrekontuaren esleipenak egin dute gora, 2021eko gutxieneko datuen ondoren. Berrikuntzaren itzulketara neurtzeko kontabilitateak ere pisu handiagoa dauka, eta, jakintzaren babesaren bilakaera, ordea, egonkorragoa izan da. Era berean, laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresen proportzioak ere gora egin du.

Guztira, datuen arabera, esan liteke berrikuntzaren kudeaketa gehiago profesionalizatu dela, oraindik aurretik bide luzea duen arren.




BERRITZEKO ETORKIZUNEKO ASMOA

2020tik 2024ra, Bizkaiko enpresek berritzeko duten asmoaren joera beheranzkoa izan da arlo guztietan.

Gaur egungo mailak aurreko urteetakoak baino txikiagoak badira ere, enpresen oinarri esanguratsuak berritzeko asmoa dauka oraindik. Hori dela eta, badirudi oraindik ere berrikuntza haien estrategiaren ardatz nabaria dela, ingurunea zuhurragoa bada ere.

- PRODUKTO EDOTA ZERBITZUAK
- EKOIZPENA, BANAKETA ETA LOGITIKA
- MARKETINA
- ANTOLAKUNTZA
- LANKIDETZA




ENPRESEN LANKIDETZA

Bizkaiko enpresek berrikuntzaren arloan garatzen duten lankidetzari dagokionez, apurka-apurka igo da, 2020an eta 2021ean jaitsi ondoren.

2024an, mailak pandemiaren aurretiko balioetara hurbildu dira, azken ekitaldian (%39,1) nahiz azken lau urteotan (%40,7).

Beraz, badirudi berriro ere elkarrekin lan egiteko prest daudela, berrikuntzaren erronkei aurre egiteko orduan.




* Grafikoak 2015etik aurrerako datuak erakusten ditu, urte horretan sartu baitzen enpresetako lankidetzari buruzko galdera, bai azken ekitaldian, bai aurreko lau urteetan.

BIZKAIKO BERRIKUNTZAREN INDIZEA

2019tik 2024ra, Bizkaiko enpresen berrikuntzaren indizearen arabera, apurka-apurka egin dute hobera, 2024an, batez ere, maila “handia” eta “oso handia” handitu direlako (%19,2raino eta %13,6raino, hurrenez hurren) eta berrikuntza “oso txikia” duten enpresen taldea nabarmen murriztu delako.

Bilakaera horren ondorioz, badirudi dinamismo berritzailea suspertu dela, pandemiaren eraginen ostean eta enpresen-sarearen zati batean profil berritzailea indartzeko garatutako prozesuaren ondoren.





Txosten honetan, **agiri luzeagoaren esparruan egindako azterketaren ondorio nagusiak** azaltzen dira, bertan adierazle gehiago biltzen direlako eta xehetasun zehatzagoak ematen direlako. Agiri hori hementxe dago eskuragarri: <https://barrixe.com>

Adierazi behar da, berrikuntzari eksklusiboki eskainitako txosten horretaz gain, **barrixe**k honako hauei buruzko txostenak ere egiten dituela:

- **Bizkaiko Enpresen Eraldaketa Digitala**
- **BaBesTu: Jabetza Industrialari Buruzko Azterlana**
- **Bizkaiko Kanpo Merkataritza, produktuen maila teknologikoaren arabera**

barrixe - Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokia Bizkaiko Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoko Sailaren eta CámaraBilbaoren ekimena da, eta berrikuntza bultzatzea dauka helburu. Izan ere, jakin badakigu funtsezko faktorea dela, gure hazkuntza ekonomikoa sustatzen duen ekonomia lehiakorra sortzeko orduan.

Horrez gain, **gure albisteen aldizkarian eman ahal izango duzu izena**, gure azterlan guztien eta berrikuntzari buruzko albisteen berri edukitzeko. Bestela, sare sozialetan ere jarraitu ahal izango diguzu.

<https://barrixe.com> info@barrixe.com

